



Antxiñako fotografixia

Arrazolaneko kantoia



Txoko estimaua izaten geben hau auzoko umiak geure jolasetarako. Egixa esan, fabriketako sartu-urtenerako orduak kenduta, Kale Zaharran be etzan aparteko mobimendurik somaiten. Baiña kale-kantue estu eta motz honek beste lasaittasun bat eskintzen oskun, kotxiak handik nekez pasaitten ziran-eta. Bidekurtze honetan **Ikasola Kalea** (sic) edo **Calle Colegio** izenekua hasten zan, hau da, agustiñuen eliza-konbentu eta herriko ospitalaren ondotik parrokiako kanpantorre pareraño eruaten gintuan osteko kalia; gaur egunian **Aita Madina** moduan ezaguketan dogun horixe.

Eskumako etxia **Arrazolatarr**ena zan orduan eta holaxe da oraintxe be. Konturatuko ziñain eztala gauza haundirik aldatu. Ezkerrekuari, barriz, **Largorena** esaten gontzan, han bizi ziran bi anae mutilzaharrak Zañartu auzoko **Largokua** baserriko semiak ziralako. Patxi eta Estebanek lurrezko ontzixak saltzen zittuain beheko aldiñan eukain antigualeko denda illun eta misterioitsu batian. Hantxe erosi gittuan gure lehenengo itsulapikuak. Largotarren etxe hori eta aldamenekua bota egin zittuain, 1960ko hamarkadiaren hasieran **Lizaur Kalia** eregi zanian.

Lizaur Kalia egitteko, gañera, aurrian dagozen hormia eta atia kendu, errekoa salbaitteko zubixa moldau, eta ospittaleko ortutik estaziñorako tartia zabaldu bihar izan ziran. Lehentxuago aldatu zan beste gauza bat kalien zorua izan zan: fotografixia honetan hain ondo bereizten diran adokin-klasiak berihelaxe bardinddu zittuan asfaltuak. Barrenian agiri dan **Garagaltza** auzuak Etxebarrialde eta Gaztelondo baserrixak, San Juan ermittia, kanposanturako bide arboladuna eta Leintzerako kaltzada zaharra erakusten dosku. Baserrixak eta ermittiak zutik eta oso samar irauten daue; bidiak ez hainbeste.

Ezkerreko etxe-kantalian ikusten dittugun neskatilla-mutikuak, **Joxe Antonio Alzelai** zana eta **Begoña Idigoras**, urrin barik bizi ziran, jakiña. Agertu diran datuak kontuan izanda, fotografixia 1954-1955 ingurukua dala pentsau geinke.

J. E.

Argazkixa Udal Artxibokua da eta argibidiak Begoña Idigoras eta Jabier Alzelaik emun doskue.